

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gradu Amaierako Lana

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

**PIKLER LÓCZY EREDUAREN KALITATEZKO HARREMANAK.
Pixoihalaren aldaketaren behaketa urte bateko gelan.**

Egilea: ANE MUGURUZA BARTOLOME

Zuzendaria: ELENA HERRÁN IZAGIRRE

Leioan, 2016ko maiatzaren 28an

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Esparru teorikoa.....	5
1.1. Emmi Pikler.....	5
1.2. Lóczy Institutua.....	6
1.3. Esku hartze zuzeneko eremua edo kalitatezko zaintza uneak.....	7
1.3.1. Pixoihalaren aldaketa.....	9
1.3.2. Harreman pribilegiatua eta jarduera autonomoa.....	10
1.3.3. Umea eta helduaren arteko elkarrekintza zuzenak.....	11
1.4. Helburuak eta hipotesiak.....	12
2. Esparru enpirikoa: Komunikazioa pixoihalaren aldaketan behatzen.....	13
2.1. Lanaren garapena.....	13
2.2. Lagina prestatzen.....	14
2.3. Behaketa irizpideak.....	15
2.4. Jasotako datuak:.....	16
3. Emaitzak.....	16
4. Ondorioak.....	21
5. Erreferentziak.....	26
ERANSKINAK.....	27
I. ERANSKINA: Grabaketen datuak.....	28
II. ERANSKINA: Jasotako datu orokorrak.....	29

PIKLER LÓCZY EREDUAREN KALITATEZKO HARREMANAK: Pixoihalaren aldaketaren behaketa urte bateko gelan

Ane Muguruza Bartolome
UPV-EHU

Pixoihalaren aldaketan hezitzailea eta umearen arteko komunikazioa nola ematen den aztertzea izan da lan honen helburua. Pikler-Lóczy ereduaren oinarri hartuta Abusu Ikastolako gela bateko umea eta hezitzailearen arteko elkarrekintzak eta komunikazio keinuak behatu dira sistematikoki. Gainera, aldaketa burutzeko espazioa egokia den behatu da. Jasotako emaitzen arabera, harreman pribilegiatua sortzeko saiakerak egin arren hezitzailearen jarduna ez dago Pikler-Lóczy eredutik oso gertu. Izan ere, saiakera horietan ereduaren araberako harremanaren gabeziak agertu dira.

Pikler-Lóczy pedagogia, pixoihalaren aldaketa, harreman pribilegiatua, umea, hezitzailea.

El objetivo de este trabajo ha sido analizar la comunicación entre la educadora y el niño durante el cambio del pañal. Tomando como base el modelo Pikler-Lóczy se han observado sistemáticamente las interacciones y gestos comunicativos de una educadora y los niños de su grupo de la ikastola Abusu. También se ha analizado el espacio donde se realizan los cuidados. Según los resultados obtenidos, a pesar de que la educadora intenta crear una relación privilegiada, no se asemeja al modelo Pikler-Lóczy. La verdad es que, se han mostrado carencias con respecto al modelo a la hora de crear este tipo de relaciones.

Pedagogia Pikler-Lóczy, cambio del pañal, relación privilegiada, niño, educadora.

Le but de ce travail a été l'examen de la communication entre l'éducatrice et l'enfant au moment du changement de la couche. En prenant comme base le modèle Pikler-Lóczy on a systématiquement observé les interactions et les gestes communicatifs d'une éducatrice et les enfants de son groupe de l'ikastola Abusu. En plus, on a examiné si l'espace du changement est le propice. Selon les données reçues, malgré les efforts pour créer une relation privilégiée, la pratique de l'éducatrice n'est pas très proche du modèle Pikler-Lóczy. En fait, dans ces essais ont apparues des carences dans la relation.

La pédagogie Pikler-Lóczy; changement de la couche; relation privilégiée; l'enfant; l'éducatrice

Sarrera

Haur Hezkuntzako Graduaren bukaeran, ikasle orori egokitu zaion bezala, niri ere GRAL-a egitea egokitu zait. Lau urte hauetan egindako ibilbideari bukaera gogoangarri bat emateko aukera paregabea da. Bide hau hasi aurretik, Gradu Amaierako Lana zehazterako orduan, nire buruan nahiko argi neukan haurren lehen etapan oinarritu nahi nuela, hau da, 0-3 urteko etapan.

Ume txikiez ari garenez, ez da bakarrik hizkuntzara mugatzen; begiradek, mugimenduek eta jarrerek baldintzatu egiten dute haurrarekin sortu behar dugun harreman horretan. Gaur egun, haur eskola askotan aldatzen hasiak diren arren, oraindik ohikoa da hezitzailea zaintza uneak denboraren eta bere nahien arabera antolatzen ikustea, umea kontutan izan gabe. Beraz, nire helburua lan honen bidez gaur egun dauden baldintzak kontutan izanik Pikler-Lóczy ereduak proposatutako kalitatezko zaintza uneak nola bermatu daitezkeen aztertzea da.

Hortxe kokatu dut nire gaiaren esparru teorikoa, Pikler-Lóczyko ereduari hain zuzen. Lau urte hauetan zehar eredu honen inguruan zertxobait ikasi dugun arren, gehiago sakontzea zen nire asmoa eta horretarako, nik aukeratutako gaiarekin batera lantzea erabaki nuen. Pikler-Lóczy pedagogian umearen jardura autonomoa eta mugimendu askea errespetatzeaz gain, kalitatezko zaintzak eta umea eta helduaren arteko harreman pribilegiatuak dira zutabe nagusienak.

Bertan zaintza uneetan komunikazioari ematen dioten garrantzia aztertu nahi izan da eta eredu hori aurrera eramaten saiatzen den Abusu Ikastolako hezitzaile batekin burutu da. Izan ere, Euskal Herriko hainbat zentrotan, Pikler-Lóczy metodologia aurrera eramaten saiatzen ari dira baina Hungariako eta bertoko errealitateak desberdinak izanik ezin da ereduak erabat errepikatu. Bien arteko aldeak alde, ikerketa lan honetan Abusu Ikastolako ereduaren behaketa egin da.

Denetara hamar saio behatu dira pixoihalaren aldaketan zentratuz. Mota horretako behaketa egiten nuen lehenengo aldia zela kontutan hartuta ez da erraza izan. Hala ere, pozik gelditu naiz emaitzarekin eta datu esanguratsuak jaso ditudala esango nuke.

Esparru teorikoan Pikler-Lóczy ereduaren ideia garrantzitsuen eta kalitatezko zaintzen inguruan aritu naiz, horrela, komunikazioak bertan duen garrantzia azpimarratzen saiatu naiz. Gainera ikerketa honi zentzu bat emateko, helburu eta hipotesi batzuk proposatzea izan da beste eginbeharretako bat, ondorioetan egiaztatzen saiatu naizenak. Esparru enpirikoan aldiz, behaketa lanak azaldu eta lagina ateratzeko eman ditudan pausuak zehaztu ditut. Bertatik

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

jasotako datu guztiak antolatzea eta jasotzea ez da batere erraza izan baina modu txukun batean adierazi ditudala esango nuke. Bertan, emaitzetan jasotako ideia garrantzitsuenak adierazi ditut eta hauek hasiera batean proposatutako hipotesiekin bat datozen edo ez azaldu dut.

Hezitzaile orok ume batekin harreman bat sortzeko, nahitaez komunikazio bat egon behar duela egiatzatu dut, elkarrekintza bat, hartzaile bat eta igorle bat egon behar direla mezuarekin batera. Ume txikiez ari garenean, begiradaz, mugimenduez, keinuez edota aho-soinuez ari gara eta honako mezu hauek identifikatzen eta hauei hitzak jartzen ikasi behar da. Baina badakigu, egun, oztopo ugari eta ez jakintasun asko dagoela kalitatezko zaintzen inguruan, nire aldetik lan honekin ekarpen xumea egitera nator: Pikler-Lóczy eredua oinarri hartuta egungo errealitatearen alderaketa bat egitea.

1. Esparru teorikoa

Gaur egun ume txikienean eskolatzeko hasiera gero eta gehiago aurreratzen ari da, egungo sistemak ez duelako bat ere errazten umeen zaintza familia giroan. Horregatik, gero eta ume gehiago dira hilabete gutxirekin ume eskolatan hasten direnak. Lehen haurtzaroko, hau da, 0-3 urte bitarteko garaia, berebiziko garrantzia duen aldia dela badakigu, garai horretan izandako esperientziek gerora, bere motrizitate garapen globalean, nortasunean, bere buruarekiko irudian zein kontzientzian eta jarreran eragina izango baitu (Wallon, 1976). Beraz, ume txikienean ume eskolatan ematen dituzten orduetan behintzat aspektu guzti horiek errespetatzea eta ahalbidetzea izango da hezitzailearen lana. Ildo horretatik joz, egun, gure geografiako haur eskola desberdinetan Emmi Pikler pediatria hungariarraren ekarpenak gero eta zabalkunde handiagoa izaten ari dira.

1.1.Emmi Pikler

Pikler-Lóczy eredua kokatzeko ezinbestekoa da bere sortzaile nagusiaz mintzatzea, Emmi Pikler mediku pediatria hungariarra. 1902an Vienan jaiotako emakume honek, medikuntza ikasketak egin ostean Vienan bertan pediatria ikasketak burutu zituen, Pirquet eta Salzer irakasleekin batera. Bi profesional hauek pediatriaren jardunean umeen bizitzarengatik interesa kontutan hartzen zuten erabat. Izan ere, umeari azterketa medikuak egiterakoan, minik eman gabe eta kontu handiz egiten zituzten umeak negar egin gabe. Baina Piklerrek ez zuen ospitaleko esperientziarekin bakarrik osatu haurtzaroz zuen ikuspegia, bere alabarekin ere praktikan jarri zituelako aipaturiko printzipio hauek. Bere alabaren erritmoa, inizatibak, mugimendu eta jolas askea errespetatuz, baldintza egokiak eskainiz garapen harmoniatsua eskaini izan zion.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Behin Hungariara itzuli zenean, 10 urtez familia pediatria gisa jardun zuen, 100 familia inguru lagunduz eta umeen garapenari dagokionean aholkatuz. Lan egiteko modu honekin, konfiantza sortu zuen gurasoengan, umeek esku hartze zuzenik gabe garatzeko gaitasuna zutela ikustean, beharrezkoak ziren zaintza momentuetako interbentzio zuzenak modu pertsonalean ere egin zitezkeela erakutsi zien aldi berean Piklerrek. Eta ez soilik esku hartzei dagokionean, beste aspektu batzuei buruz ere aholkatu egin zien, hala nola; espazioa prestatu, zaindu eta transformatzen erakutsi zien, umeak behatu eta eurekin gozaten baita ere (Herrán, 2014).

Beraz, Emmi Piklerrek hezkuntza sistema bat proposatu zuen. Sistema hau kalitatezko zaintzak eta adinaren araberako beharrezkoen egokitutako espazioa eskaintzean eta batez ere, umearen mugimendu askea errespetatzean oinarritzen da.

1.2.Lóczy Institutua

1946az geroztik, II. Mundu Gerra ostean, Hungariako gobernuak Budapesteko umezurtz etxe bat zuzentzeko eskatu zion Piklerri, Lóczy kalean kokatutakoa, gerora, 1964ean Lóczy Institutua bihurtuko zena. Hasiere batean hiru helburu nagusi jartzen dizkio bere buruari: batetik, instituzio batean umeen garapen fisiko zein psikiko osasuntsurako baldintza batzuk sortzea posible dela egiaztatzea, familien parekoa; bestetik, Lóczy bertan bere hezkuntza sistema aplikatzea, eta azkenik, behaketa zorrotz eta sistematikoak egitea umeen eta beraien egunerokotasuneko egoeren inguruan.

Piklerrek instituzioko langileak ikasketa zorrotz baten bitartez formatzen dituen bitartean, Lóczyko lan taldea zabaltzen doa eta hezitzaileez gain, pedagogoak, psikologoak, erizainak, pediatriak, etab., batuko dira. Hezitzaileek umeren potentzialtasunarekiko konfiantza osoa eskuratuko dute, umeren lehen etapa honen bilakaeraren, ezaugarrien eta garapen-baldintzen ezagutza zehatzarekin batera umei eskaintzen zaizkien kalitatezko zaintzak eta beraien jarduera autonomoaren bilakaera eredu honetan estuki lotuta daudela ikasten dute (Herrán, 2014). Izan ere, bi ardatz hauetan oinarritzen dira, hain zuzen; Lóczyko lau printzipio nagusiak, eguneroko jarduera guztietan aplikatzen direnak (David eta Appell, 2010):

- Umearen jarduera autonomoa ahalbidetu eta errespetatu.
- Harreman afektibo sendoa eratu.
- Umeari bere buruarekiko zein ingurunearekiko kontzientzia garatzen lagundu.
- Osasun-egoera fisiko ona izatea ahalbidetu, aurreko printzipioen ondorio eta oinarri.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Elkar ezinbestekotasun baten baitan ulertu behar dira lau printzipio hauek, batak ezin du bestea faltan izan. Hezitzaileari, umearen mugitzeko gaitasuna eta era autonomo batean jolasteko gai dela ikustean, zaintza uneetan momentuan dagokion umearekin zentratzeko aukera ematen dio. Izan ere bi esku hartze mota nagusi bereizten dira Lóczyn, batetik, esku hartze ez-zuzena; espazio eta material egokia eskaintzea eta umearen behaketa zorrotz bat egiteari dagokiona, interbentzio honetan umeak libreki jardungo du, hezitzailea esan bezala bigarren plano batean geratuz. Eta bestetik, umearen zaintza uneetan ematen den esku hartzea dago, azken esku hartze honetan, umearekin eskuhartze zuzena ematen da, harreman bat sortzeko aukera ematen dio umeari, pribilegiozko harreman afektiboa hain zuzen. Bigarren interbentzio mota honetan kokatzen da heldua eta umearen arteko harremanean ematen den komunikazioaren garrantzia.

1.3.Esku hartze zuzeneko eremua edo kalitatezko zaintza uneak

Lóczyko aberastasun handienetako bat, egunerokotasunaren pedagogia egitea izango litzateke, kalitatezko zaintza uneak hain modu natural eta errespetuzkoa burutuz. Izan ere, umea eta helduaren arteko harreman pribilegiatua izateaz gain, umeari bere ongizatea eta asetasuna modu natural batean eskaintzeko unea da; higiene, garbiketa eta elikatzeko beharriaz erantzuten zaion bitartean (David eta Appell, 2010).

Umeari ematen zaizkion arreta pertsonal guztietan maneiatzeko eta plazera eta interesa transmititzea ezinbestekoa da. Zaintza une hauek umearen egunerokotasuneko une zehatz batzuk dira: elikadura, bainua, pixoihalaren aldaketa, jantzi eta erantzi eta azterketa medikoak. Une hauetan umearen gaitasunak sendotzeko irizpide batzuk badaude (David eta Appell, 2010):

- Umea ez da objektu gisa tratatuko, sentitu, behatu, memorizatu, eta ulertzera iristen den gizaki bat bezala baizik.
- Zaintza uneetako sekuentziak modu zorrotz batean errepikatuko dira.
- Ez da inongo presarik eta bortizkeriarik emango.
- Ez da inongo etenaldirik egingo zaintza uneetan.

Azken bi ezaugarri hauekin, pentsa genezake denbora luzea inbertitzen dela une hauetan, baina Lóczyko datuen arabera kontrakoa gertatzen da. Umea ez dela objektu gisa tratatu behar esaten denean, ez da soilik adeitasunean gelditzen, keinuen goxotasunean ere badago zer esana. Izan ere, dena modu arretatsu eta suabe batean gauzatzen da umearen partaidetza duelako.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Zaintza une bakoitzean umearen gorputzari kasu egin behar zaio eta ondorioz ez da inoiz hartuko besoetan eta ez da aldatokian utziko, umeak menperatzen ez duen postura batean. Umea besoetan hartu, beregana zuzenduko da hezitzailea, ezustekorik ez hartzeko. Besoetan hartzeko unean, helduak umea eutsi eta jasoko du gustura sentitzen den postura batean, umea seguru eta eroso sentitzen delarik.

Umearen parte hartzea sustatzeko hiru neurri elkarlotzen dituzte David eta Appell-ek (2010). Batetik, zaintza une osoan zehar, hezitzaileak umeari begiratzen dion bitartean hitz egiten dio. Egiten duena azaltzen dio, bere erreakzioak komentatzen ditu, aukerak erakutsiz ea zer nahiago duen galdetzen dio bere ustez non egongo den hobeto eta zergatik azalduko dio, eta abar. Umea hazten doan heinean, hezitzaileak egiten duenari hitzezko komunikazioa gehitzen jarraitzen du eta umearen interesei erantzuten die. Hezitzaileek komunean hiru ezaugarri dituzte hitzezko komunikazioari dagokionez: tonu uniforme bat, leuna, ez oso fuertea eta erritmo konstantea.

Bestetik, hitzezko azalpenaz gain umeak erabili beharreko tresna zein objektuaren aurkezpena egingo zaio, zertarako erabiliko den azalduko zaio, adibidez; edalontzia, koilara, arropa, manta... Hezitzaileak objektua erakustean, umearen ukitzeko lehenengo saiakerak errespetatuko ditu eta hasiera batean manipulatzera eta ondoren bere kabuz erabiltzera animatuko du.

Azkenik, umearen keinuetan parte hartze eta kooperazio aktibo bat espero da kalitatezko zaintza une hauetan. Horretarako, hezitzaileak umearen nahigabeko mugimenduetatik abiatuko da eta gutxika-gutxika umea egiten ari denaren bitartez kooperazio burutzen eta aldi berean kontzientzia hartzen joango da bere jarduera ezberdinen arabera mugimenduak egokiak eta nahitaezkoak izatera iritsiko dira.

Piklerrek (2013) zehaztutakoaren arabera, zaintzak elkarren segidan eman behar dira eta ordena mantendu behar dute, umeak denbora, bere burua eta bere gaitasunaren kontzientzia har dezan. Umea kalitatez zainduz gero, ederto sentitzeaz gain, bere gorputza ezagutzeko eta bizitzeko berezko gaitasuna garatuko du, plazera topatuko du bere funtzionamenduan eta konturatuko da bere azalak muga bat sortzen duela bera eta gainontzeko munduaren artean (Falk, 2013).

1.3.1. Pixoihalaren aldaketa

Piklerrek (2013) irudiko, Lóczy zaintza uneak kalitatekoak izateko eta helduak umearekin sortuko duen pribilegiozko harreman hori sortzeko ezinbestekoa da *koreografia* (Tardos, 2014) zehatz bat aurrera eramatea. Horretarako, aldagai desberdinak hartu behar dira kontutan baina koreografia beti era berean errepikatu behar da. Lehenik eta behin, testuinguru prest edukitzea ezinbestekoa da; pixoihalaren aldaketarako beharrezkoa den guztia eta espazioa bera ere adinaren arabera antolatu behar da.

Espazioa eta materiala prest daudenean, umearengana gerturatuko da hezitzailea, bere izenez deitu eta eskua umearen gainean jarriko du ondoren egingo diona komentatuz. Hitzez adieraziko dio hezitzaileak pixoihala aldatu behar diola eta denbora emango dio umeak keinu batez erantzuteko eta tarte bat itxaron ostean besoetan hartuko du.

Ostean, lurretik altxatzea edota aldatokira eramatea edo gonbidatzea dator. Lóczy beti, enborretik eusten zaio umeari. Umea jasotzen denean, modu seguru batean eramango du helduak, oreka galtzeko arriskurik ez dela egongo ziurtatuz.

Jolasgunetik edota umea aurkitzen den espaziotik aldatokira eramatea da hurrengo pausua, batzuek oinez egingo dute bide hori eta beste batzuek hezitzailearen besoetan. Behin aldatokian Lóczyko hezitzaileak pixoihala aldatuko diola aurreratuko dio, hurrengo pausuak zeintzuk izango diren esango dio eta honekin batera zaintza une honetan parte hartzeko aukera emango dio. Horretarako, ezinbestekoa da, koreografiaren hasieran esan bezala, umeari denbora ematea (Tardos, 2014)

Falken (2009) ustez, umea bere gorputzarekin gertatzen ari denaz jabetu ahal izateko, horren kontaketa egitea ezinbestekoa da. Horrela, bere buruaren kontzientzia pertsona gisa hartzen hasiko da. Pikler-Lóczy ereduak dio, zaintza uneak kalitatezkoak izateko, umeak gozatu eta plazera sentitu behar duela. Kontutan hartu beharreko zehetasun bat hezitzaileak umeei zuzentzeko duen modua da, izan ere, pixoihalaren aldaketa zikinkeria kentzeko une bezala ikusi izan da maiz. Lóczy hezitzaileak ez du inoiz horrela izendatuko une hau. Errealitatean gertatu dena esango dio helduak umeari: “kaka egin duzu? Orainxe aldatuko dizut”. Tardosi (2014) egindako elkarrizketan, argi adierazten du une hauek ondo zehaztutako zainketak direla eta berebiziko garrantzia duela koreografia bat mantentzeak eta naturaltasunez hitz egitea umeari. Hezitzaileak berak komunera joaten denean badoala eta zertan doan adierazten die umeei, egunerokotasunaren adierazpen gisara

1.3.2. Harreman pribilegiatua eta jarduera autonomoa

Harreman pribilegiatuaz hitz egiten dute maiz Lóczyren filosofiaren baitan lan egiten duten profesionalek. Autonomia garatze bidean, helduak paper garrantzitsua jokatzen du, izan ere, umeak jaiotzatik bi era ditu bere gorputza ezagutzeko; batetik, berak bere gorputzarekin egiten duena eta bestetik, gainontzekoek bere gorputzean egiten diotena (Falk, 2013). Argi dago, inportanteena, umeak bere gorputzarekin izango duen gorputz esperientzia dela baina helduaren eragina oso garrantzitsua da.

Umeak kalitatezko zaintzetan segurtasun afektiboa bizi badu, gero probetxua aterako dio libreki jarduten duenean helduaren interbentziorik gabe eta munduaren aurrean interes eta plazerarekin agertuko da (Falk, 2013). Umeak, hasieran, modu desatsegin batean biziko ditu bere beharriak, ez du ulertuko zer sentitzen duen gosea, egarria, hotza edo beroa denean. Helduak bere keinuak ulertuz lasaitu eta asetuko du une hauetan. Horrela, helduak umeari bere beharriak adierazten, seinalatzen irakatsiko dio, hasieran segurtasunik gabe adierazi arren, denbora aurrera joan ahala modu landuago batean adieraziko baititu. Aldi berean, bere asetasunarekin lotutako ongizatea ere adierazten ikasiko du. Ondorioz, umeak bere segurtasun fisikoa eta emozionala zaintzen duen helduarekin erlazionatuko ditu.

Falken arabera (2009) umearen zaintza fisikoaren kalitateak, elkar ulertzea eta plazera lotzen ditu. Helduaren mugimenduen kalitateak umearen tonu muskularra eta gorputz-konfiantza baldintzatuko ditu. Izan ere, zaintza aurrera eramateko teknika onak segurtasuna transmititzen dio umeari. Horregatik, umea ezin da inoiz espero ez duen mugimendu batekin ukitu behar. Begirada bilatu behar da, elkarrizketa. Umearen garapen mailara egokituta, helduak umearengandik nahigabeko edo nahita egindako mugimenduak esperoko ditu eta orduan ukituko du esku adeitsu batekin.

Hezitzailearen helburuetako bat, umeak bere kabuz jantzi-erantzera iristea da. Helduarengan interes berezi bat piztu behar da umearen jarrera, garapen eta izaerarekiko (Hevesi 1980). Horregatik, umeari denbora eman behar zaio nahi duena; onartzen duen ala ez adierazteko. Kalitatezko zaintzetan parte hartzen duen umeak, parte hartzen du "nik bakarrik" egitearen jarrerarekin. Noizbehinka arreta deitzeko keinuak egingo ditu, mugimenduak, edo zerbait desberdina, helduaren arreta deitzeko, kasu batzuetan ere adarra joko dio umeak helduari. Eta kasu horietan helduak, ahal duen bezala zaintzaren ekintzara bideratu eta moztu egingo du.

Garrantzitsua da umeak zaintzetan ematen den *koreografiaren* pausu guztiengatik interesa izatea. Elkarrekintzen katea eteten bada, hezitzaileak umearen begirada bilatuz, elkarrekintza berreskuratzen saiatuko da. Hevesik (1980) dioenaren arabera, Lóczyko hezitzaileen ustez, oso inportantea da umearen aldetik ahalik eta parte hartzerako keinu gehien jasotzea, ezetz bada ere. Aldi berean, onartu egiten dutelako umeren batek eskaintzen zaion gonbitea aprobetxatu nahi ez izatea.

Helduek umei batez ere zaintza uneetan hitz egiten diete. Elkarrizketa bat mantentzen dute umeekin, horrela umeak senti dezake eguneko une batzuetan hezitzailea berarekin bakarrik dagoela, eta ez beste inorekin. Entzuten diola, hitz egiten diola, bere erantzuna itxaron eta erantzuten duela. Hezitzaileak egunero umeari, gertatzen zaizkion gauzen inguruan edota taldearen gertakizunez hitz egiteko praktika modu natural gisa hartuko du.

1.3.3. Umea eta helduaren arteko elkarrekintza zuzenak

Zaintza uneetan ezinbestekoa da heldua eta umearen artean harreman pribilegiatua sortzeko elkarrekintza zuzena izatea. Hezitzaileak jarduera autonomia kontutan izatean umearekiko duen begirada aldatu egiten du eta harremana heldua eta umearen arteko elkarrekintza horietan oinarrituko da. Ezinbestekoa da helduak umearekiko errespetua adieraztea. Izan ere, umearen jarduera autonomia baliotan jartzeak kolaboratzaile aktibo gisa ikustera eramango du.

Helduak komunikazioa sortuko du umearekin begirada, ukimena, keinuak eta hitzaren bidez, baina ez da bakarria izango, umeak ere egingo baitu. Horretarako hezitzaileak umearen seinaleak ulertu eta erantzuteaz gain, indartu eta zentzua emango die. Falkek (2009) dioenaren arabera, heldua umearengana arretatsu eta adeitsu hurbiltzea ezinbestekoa da, egingo duena eta umeari gertatuko zaiona beti komunikatuz, eta aldi berean, umearen keinu eta adierazpenak ulertzeko saiakera eginez. Umeari aukera ematen dio adina zein den axola gabe, zaintza unean esku hartzeko eta bere beharrianak asetzeko moduan.

Lóczyko hezitzaile batek autonomiaren garapenaren bidean, badaki umea pertsona bezala tratatzen duenean, hitzaren eta keinuen goxotasunen bidez egin behar duela. Horrez gain, helduak badaki umea ezin duela manipulatu eta gidatu bere nahien arabera eta bestalde, beste hezitzaileekin komuneko ekintzaren koordinazioa bermatu behar duela. Egoera honetan, Lóczyko hezitzaile eta umearen artean elkarrizketa bat sortuko da, umeak aurrerago erabili ahal izango dituen baliabide berriak erakutsiko dizkiona bere zaintza uneetan eragina izateko. Baina

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

helduak bere aldetik ere umearekin komunikatzeko baliabide gehiago ikasiko ditu, umeak jasotzen duenaren arabera komunikatzeko bere jarrerara egokituko du.

Zaintza uneetan, helduak posible egiten du umearen parte hartzea animatuz eta preziatuz baina inoiz ez exijituz. Bitartean, berarekin harreman ona mantentzen duen umeak aukera aprobetxatu egiten du bere kabuz egiteko eta aurreratu egiten da autonomiarantz. Izan ere, kooperatzen duen umeak heldua laguntzen du plazer hutsez, helduaren eskaerari erantzuteko baimena ematen dio bere buruari nahiz eta noizbehinka arreta beste zerbaitetan jarri. Horrelakoetan jolastu egiten du edo helduaren arreta bilatzen du gertaera baten harira, baina Lóczyn umearen kooperazioa bilatzen duen helduak umearen arreta bereganatzen eta ekintza konpartitu horretara berriro eramaten jakin behar du.

Falkek (2009) dio autonomia berez, ez dela azken helburua. Izan ere, umeak jarduera bere kabuz egitea eta beronek sortzen duen plazera ez baditu lotzen edo ez badu hori bere independentzia kontsideratzen ez du autonomia altxor gisa biziko. Umea eta helduaren arteko elkarrekintzak aldatzen doaz. Batetik, denborak aurrera egin ahala eta bestetik, umearen arabera. Trataera ez da beti berdina izango, umeak protagonismo gehiago irabaziko du eta gutxika heldua bigarren plano batean geldituko da, bere parte hartzea gutxituz umearena handitzen doan bitartean. Bigarren urtetik aurrera, kooperazioa aldatzen doa progresiboki, modu naturalean biziko du parte hartzea; pixoihalaren aldaketan adibidez, umea zutik dagoenean belauak tolestuko ditu hankarteko garbiketa errazte aldera (Falk, 2009).

1.4.Helburuak eta hipotesiak

Behaketa lan honetarako, zaintza guztietatik, pixoihalaren aldaketa aukeratu da. Baina ez da jarduera bakarra behatuko, izan ere, pixoihalaren aldaketaren ostean, amantala janzteia eta ura edatea dator. Aztertutakoaren arabera, ez dago alde handiegirik hiru une horien artean komunikazioaren aldetik beraz, lagina ateratzerako orduan datuak hiru zaintza mota horietan jarri arren, pixoihalaren aldaketan jarri da interes berezia. Zaintza une orotan kalitatezko harreman bat izatea ezinbestekoa dela ulerturik lan honetan pisu gehien duen zaintzan jarri da interesa. Behaketa honetan ez da soilik zaintzaren koreografia behatuko, umea eta helduaren arteko komunikazioa ere aztertuko da.

Asmo honekin, hezitzaile eta umearen arteko elkarrekintzak aztertu dira, Pikler-Lóczy eredua aurrera eramaten diren eskola batean. Budapesteko eredua ezaguna izan arren, hemen,

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Euskal Herrian aurrera eramaten duten eskolak daude eta eredu hau aurrera eramaten saiatzen den eskola batean jarri da fokua.

Behaketa honen helburu nagusia errealitatean Abusu Ikastolako hezitzaile baten eta bere gelako umeen arteko komunikazioa aztertzea da pixoihalaren aldaketa momentuan.

Azterketa horretan sakontzeko eta hezitzaileak ume guztiekin aldatokian koreografia bera bete behar duenez kontutan hartuta, ondorengo helburu zehatza proposatzen dira ere:

- Ume bakoitzaren araberako hezitzailearen jarrera aztertzea.
- Pixoihalaren aldaketan alde biko hezitzaile eta umearen aldetik keinuak aztertzea.
- Aldatokiko espazioa egokia den aztertzea.

Printzipioz espero dena, hezitzaileak pixoihala aldatzen duen unea, zaindua, goxoa eta Pikler eredukoa izatea da. Horrez gain, hezitzailea aldaketa burutzen doan heinean, erabiliko dituen keinuak Pikler-Lóczy eredukoak izatea espero da: ahots goxoa, begirada zuzena, koreografia zehatza, hemen eta orain gertatzen ari denaz hitz egitea, zuzeneko komunikazioa mantentzea, umea parte hartzera gonbidatzea, helduaren gonbidapenari erantzuteko umeari denbora ematea.

Pikler ereduak pixoihalaren aldaketarako koreografia bat proposatzen duenez, hezitzaileak berau aurrera eramatea espero da. Ume bakoitzaren behar eta nahietara moldatuta bada ere. Baita aldatokiak pixoihalaren aldaketa egiteko ezaugarri egokiak izatea espero da.

2. Esparru enpirikoa: Komunikazioa pixoihalaren aldaketan

behatzen

2.1. Lanaren garapena

Bilboko Abusu-La Peña auzoan kokaturik dagoen Abusu Ikastolan hartutako lagina da, urte bateko gelan hain zuzen. Grabaketak urtarrilean eta otsailean zehar bi astez egin dira, beraz, umeek bi urte beteak dituzte edota betetzear daude. Hamabi ume dira taldean baina grabaketa hauetan zazpi ume agertuko dira soilik. Grabaketetan ageri den hezitzailea umeen tutorea da, noizbehinka eguneko une zailenetan laguntzaile bat hurbiltzen da gelara baina hamabi umeren ardura hezitzaileak berak dauka.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Ume hauen gela, urte bateko beste gela batekin konektatuta dago ate batez eta normalean irekita izaten dute, umeak batetik bestera ibili ahal izateko. Laginean zazpi umeren zaintza unea behatu da hamar saiotan zehar, hau da, pixoihalaren aldaketa, ura edatea eta amantalaren janzteia. Bazkal aurretik egiten den zainketa da, 11:00-11:30 artean, 11:30etan bazkaria ekartzen baitute jantokiko langileek. Denbora oso modu zehatzean kontrolatzen du helduak, bazkalordua ezin baitute atzeratu, jantokiko langileekin batera bazkariak ematen dituztelako. Kontutan izan behar da, gabon oporren itzulera dela eta ume batzuek ikastolako ohitura batzuk galdu egin dituztela etxeko giroan luze egon eta gero.

Behatutako espazioa nolakoa den jakitea ezinbestekoa da azterketa egiteko eta ondorioak ulertzeko. Aldatokia gelako txoko batean aurkitzen da, kristal handi baten atzean eta bertatik gelan gertatzen ari dena ikusteko aukera dago. Erabili beharreko materiala bertan dago helduaren eskura eta umeak gainean zutik edo etzanda jartzeko koltxoi bat dago.

2.2. Lagina prestatzen

Behaketaren bidezko ikerketa denez bideo grabaketa batzuk egin dira lagina jaso ahal izateko. Grabaketa hauek gurasoen zein hezitzailearen baimenari esker egin dira, EHUren eredia erabili delarik.

Grabaketa egunak urtarriletik otsailera bitartean izan dira, jarraian egiten saiatu arren, umeen edota hezitzailearen gaixotasun egoerek zaildu egin dute erritmo hori eramatea. Hala ere, egun gutxiko saltoa ematen da grabaketa batetik bestera eta gutxieneko jarraikortasun bat dago laginean. Ordu-tegiari dagokionez, gorago aipatu den bezala, 11:00-11:30 tartean egin ziren grabaketak. Normalean, grabaketak egiterako orduan hezitzaileak, laginean jasotako zazpi umeak jarraian aldatzen zituen, eta grabaketa zati oso batean egiten zen. Beste batzuetan aldiz, etenaldiak ematen ziren lagineko ume batetik bestera, kasu horietan, grabaketa bat baino gehiago egiten zen saio bakoitzean.

Grabaketak antolatzeke, ume bakoitzaren hamar saioetan zehar egindako unitateak bata bestearen ostean zatitu eta ordenatu dira, ordena kronologikoa jarraituz (ume_1, ume_2, ume_3...). Grabaketa bakoitzaren iraupena eta ume bakoitza zenbat aldiz agertzen den taula batean laburbildu da (1.go eranskina). Ume bakoitzaren zainketaren unitateak, 3-6 minutuen artean irauten du egunaren arabera. Batzuetan denbora gehiago inbertitzen dute biek une horretan, aldiz, beste batzuetan denbora faltagatik, laburragoa izaten da eta elkarrekintza gutxiagorekin burutzen da.

2.3. Behaketa irizpideak

Egindako behaketa honek hezitzailea eta umearen arteko komunikazio egoerak aztertzea du helburu nagusia, horretarako, komunikazio keinu batzuk zehaztu dira, bai hezitzailearen aldetik zein umearen aldetik. Beraz, bi atal egongo dira behaketa bakoitzean, batetik umerak (HA) eta bestetik, heldua (HE). Umeak izendatzerako orduan, Datu Basbesearen Legea dela eta, umeak zenbakiz izendatu dira; taulan Ume_1, Ume_2, Ume_3... eta jasotako datuen azalpenean zehar, lehenengo umea, bigarrena, hirugarrena.

Bestalde, behatutako hiru atal batera aztertu dira: pixoihalaren aldaketa, ura edatea eta amantalaren janztean zehar komunikazio egoera. Ondoren, lagina aztertzeko erabilitako komunikazio keinuak azalduko dira. Aukeratutako behaketa irizpide hauen maiztasuna izango da aztergaia. Beraz, ondorengo taulan (Ikus 1.Taula) unitate bakoitzean zenbat aldiz agertzen den bakoitza agertzen da. Hauek dira zehaztutako komunikazio keinuak:

Hezitzailearenak:

- Galderak egiten ditu. G
- Begietara begiratzen du. BB
- Gertatuko dena aurreratzen du. GA
- Aukerak eman/Proposamenak egin. AP
- Maitasun keinuak (muxuak, besarkadak, jolasa). MK
- Zuzenean hitz egiten dio. Z
- Ahots aldaketak egiten ditu. AA

Umearenak:

- Hitzen bidez adierazi. H
- Begietara begiratzen du. BB
- Keinuak erabiltzen ditu. KE
- Bai/Ez keinuen bidez esan. BK
- Bai/Ez hitzen bidez esan. BH

2.4. Jasotako datuak

Jasotako datu orokorrak ondo ikusi ahal izateko, ikus eranskinetan (2. eranskina). Hemen agertzen diren datuak, jasotako datu orokorren zati bat besterik ez da.


Saioak	Ume_1		Ume_2		Ume_3		Ume_4		Ume_5		Ume_6		Ume_7		GUZTIRA		2016-02-04	2016-02-11	EMAITZA
	HA	HE	HA	HE	HA	HE	HA	HE	HA	HE	HA	HE	HA	HE	HA	HE			
2016-01-11	5H, 1KE, 5BH	7G, 2BB, 3GA, 3Z			3H, 3BB, 3KE, 2BK, 4BH	7G, 3BB, 3GA, 4AP, 3Z, 2AA	1BB, 2KE, 1BK	9G, 5BB, 3GA, 5AP, 2MK, 5Z, 2AA	5H, 3BB, 1BK, 11BH	10G, 5BB, 7GA, 4AP, 8Z, 1AA			4BB, 4KE	7G, 5BB, 7GA, 4AP, 11Z	13H, 11BB, 23GA, 11KE, 20BH, 4BK	40G, 20BB, 20AP, 20MK, 5AA			
2016-01-12	6H, 2BB, 3KE, 6GA, 4BH	7G, 3BB, 4KE, 5GA, 1BK	6H, 2BB, 4KE, 3AP, 1BK	9G, 3BB, 5GA, 3AP, 7Z	3H, 3BB, 2KE, 5BK, 4BH	10G, 6BB, 4GA, 5AP, 6Z	3BB, 1KE, 1BK	2G, 2BB, 4GA, 3AP, 3Z	21H, 5BB, 4BH	10G, 5BB, 5GA, 5AP, 20Z			3BB, 3KE, 4BK	5G, 6BB, 5GA, 3AP, 3MK, 13Z, 12BH, 1AA	36H, 18BB, 29GA, 13KE, 4MK, 53Z, 1AA	43G, 25BB, 29GA, 24AP, 4MK, 53Z, 1AA			

1.Taula: Jasotako datu orokorrak

3. Emaitzak

Jasotako datu orokorren taulan (2. Eranskina) bi emaitza mota aurkitu daitezke. Batetik, beheko ilaran ume bakoitzari lotutako saio guztietako emaitzak eta bestetik, eskumako zutabearen, ume guztien saio bakoitzarena. Behaketa hauetan jasotako emaitzekin, hasieratik desberdindu diren bi partaide nabarmenduko dira, alde batetik, heldua eta bestetik, umea. Umea eta helduaren komunikazioa denez aztergai nagusia, helduaren komunikazioa eta esku hartzerako duen gaitasuna behatu da, horrela laginean informazio ugari ageri dela ikusi daiteke.

Izan ere, ikusi da nola hezitzaileak ahozko komunikazioa erabiltzerakoan batez ere galderak erabiltzen dituen, *hemen eta orain* erreferentziari kasu handiegirik egin gabe, erabilitako galderak mota askotarikoak izan daitezke, baina momentuko ekintzan parte hartzeko gonbitea baino, beranduago gertatuko denaz galdetzen dio umeari. Jasotako emaitzetan ikus daiteke hezitzaileak egunero pixoihalaren aldaketan hitz egiten duenaren erdia gutxi gorabehera galderen bidez egiten duela, adibidez; 52 galdera egiten dizkie, 19 aldiz gertatzen ari dena aurreratu eta beste 26 aldiz proposamenen bat egiten die umei bakar egun batean (Ikus 1.Taula). Umeek gutxitan erantzuten dituzte hezitzaileak egindako galderak.




1. Grafikoa: Hezitzailearen hiru joera nagusiak

Hezitzailearen komunikatzeko gaitasuna nabarmena dela ikusi arren gertatuko dena aurreratzen duenean, ez da gertakari hurbilen inguruan hitz egiten ari, hau da; egiten ari den ekintzaren hurrengoaz ez da mintzatzen. Baizik eta, zaintza une horren ostean edo egunaren bukaeran gertatuko dena aurreratzen du. Adibidez: “Gero Monika etorriko da bazkariarekin” edota “Gaur zure aita dator bila”.

Ekintzan parte hartzeko aukerei dagokionez, argi ikusi da hasiera batean, hezitzaileak parte hartzeko gonbitea egiten duela, ez aldiz aldaketak aurrera egin ahala. Gonbitea egiterako orduan, hezitzailea zehaztasun txiki batera mugatzen da, adibidez; “Zapatak kendu nahi dituzu?”. Horrela parte hartzeko aukera murriztu egiten du ekintza txiki batera. Gainera hezitzaileak umeari gonbitea egiten dionean oso denbora gutxi itxaroten du erantzuna jasotzeko. Beraz, parte hartzeko proposamenak egon arren, egokitasuna batetik, eta bestetik, denboraren eta helduaren pazientziak baldintzatu egiten dute umearen aukera. 1.go Grafikoan ikusten da zein den helduaren joera nagusia haurrarekin hitz egiten duenean, batez ere galderak egiten dizkiola.


Aztertutako beste aspektu bat, helduak umekin sortzen duen harreman afektiboa da, horretarako maitasun keinuak identifikatu dira, hala nola; muxuak, besarkadak, izenaren txikigarria, jolasa eta laztanak. Emaitzak jasotzean argi geratzen da umearen garapen mailaren araberakoa dela harreman afektiboaren aldaera. Horrela, nabaritu da, umearen hizkuntza-, garapen-, parte hartzerako garapena desberdina denean edo hobe esanda, urriagoa denean, maitasun keinuak areagotu egiten direla, adibidez; zazpigarren umeak 21 maitasun keinu jaso zituen hezitzailearen partetik eta berak aldiz, 11 aldiz erabili zuen hitza komunikatzeko (2. Grafikoa). Bertan ikusten da zein umerekin ematen diren.



2. *Grafikoa: Harremanean maitasun keinuen eragina*

Ahots aldaketak ere, norabide berean doaz, nahiz eta oso ume gutxirekin erabili, erabiltzen duen guztietan identifikatutako maitasun keinuren bat dago. Hezitzaileak, maitasun keinuak eta ahots aldaketak erabiltzen ditu komunikazio urria dagoenean.

Umearen atalari erreparatzen badiogu konturatuko gara garapen mailaren arabera jarrera ezberdina izaten dutela. Izan ere, hizkuntza gaitasuna garatuta dutenak gai dira hezitzaileak esaten eta egiten dituenak jarraitzeko, ez beharbada parte hartzeko baina bai keinuen bidez erantzuteko. Aurrerago ikusiko diren grafikoetan oso modu zehatzean identifikatu dira umeen erantzunak hezitzaileak egiten dizkien galdera eta elkarrekintzei (3. Grafikoa). Aldiz, garapen maila txikiagoa dutenek hezitzailearen hitzei ez diete ia erantzuten, begirada da mantentzen duten bakarra. Kasu horretan, hezitzaileak gorago esan bezala maitasun keinu gehiago egiten ditu eta umeak irribarre edo barre algara batekin erantzuten du, egoeraren kontrola umeen esku dagoela ematen du baina urduritasun keinuak izaten dira maiz, algara edota barre horien seinale.




3. *Grafikoa: Helduaren galderak eta umeen erantzunak*

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Hitzezko komunikazioa eta keinuak erabiltzen dituzten umeek zaintza uneetan ez dute modu zuzenean parte hartzen, hezitzaileak egindako galdera batzuei erantzuten diete. Galdera gehienen edukiak zaintza unetik kanpo kokatzen dira. Aldi berean, hitzezko komunikazioa eta keinuak erabiltzean hezitzailearen arreta deitzeko izaten da eta zaintza eremuko objektu desberdinen inguruan galdetzen dute. Adibidez; hezitzaileak pixoihalaren aldaketa egiten duen bitartean umeak apalategian dauden pixoihalen inguruan galdetzen dio: “Hau? Hau? Hau?”.

Jasotako emaitzetan, oso adierazgarria da bosgarren umeak hitzezko komunikazioa zenbatetan erabiltzen duen ikustea; 67 aldiz hitzezko komunikazioa erabili zuen grabaketa guztietan zehar eta gehienetan apalategiaren inguruan ari zen. Errepikatzen den joera da, ume batek baino gehiagok egiten du baina ikusi da elkarrizketarako gaitasun gehiago duen umeak joera handiagoa duela beste batzuek baino. Galderak egiterako orduan, hezitzaileak beti erantzuten du baina inoiz ez die galdetzeko aukerarik ematen umeei, hau da; bakoitzaren pixoihala non dagoen esatetik aparte, ez dago inongo joerarik behin eta berriro umeari galdetzeko non dagoen objektu bakoitza.

Azpirarratu daitekeen beste datu bat umeek bere *senitartekoez galdetzen* duten unek dira, joera handia dago umeengan. Jasotako datuetan ikusi da ume batzuek hitzezko komunikazioa askotan erabili dutela baina grabaketak ikusi ahala erraz ikusten da zergatik den; senitartekoen izenak behin eta berriz errepikatzen dituzte, non dauden jakin nahian. Adibiderik garbiena, lehenengo umeak hitzaren erabilpena 167 aldiz egin izana da, gainera, kasu honetan behin eta berriro senideengatik galdetzen zuen (Ikus 1. Taula). Hezitzaileak galdetutako guztietan erantzun beharrean noizbehinka bakarrik erantzuten zion.




4. Grafikoa Umearen eta helduaren begirada

Elkarrizketa egon ezean umeek ez dute helduaren begirada hainbestetan bilatzen, zerbait adierazi edota helduari kasu egiteko egiten dute. Gorago agertzen den grafikoan (4.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Grafikoa) umeak eta helduak begirada zenbatetan mantentzen duten zehazten da, bertan bi partaideen arteko ezberdintasunak ikusi daitezke. Garapen maila txikiagoa dutenek aldiz, begirada erabiltzen dute batez ere, noizbehinka keinuren bat gehitzen zaion bitartean.

Baiezko eta ezezko adierazpenei dagokionez, umeek erantzuteko gehien bat hizkuntza bidezkoa erabiltzen dute, buruarekin egiten duten keinua normalean hitzezkoarekin batera doa, beheko grafikoa (5. Grafikoa) keinu edo hitzaren bidez baiezko eta ezezkoak zenbatetan esan dituzten adierazi da. Eta baiezkoa edo ezezkoa beste keinuren batekin egiten dutenak, denak hitzen bidezko komunikazioa erabiltzen ez duten umeak dira.



5. Grafikoa: Bai/Ez keinua eta hitzen bidez

Azkenik, heldua eta umearen komunikazio keinuak identifikatzean, hitzezko edota keinuen bidezko komunikazioaz gain, *kooperazioaz* ere hitz egitea ezinbestekoa da. Hezitzaileak hasieran parte hartzeko gonbitea ez du luzatzen eta eragin zuzena du umearen jarrera pasiboa ikustean. Kasu batzuetan, zutik egoteko gai den umea zuzenean etzan egiten da besoak buruaren atzean jarriz. Beste batzuek zuzenean postura horretara jotzen dute, nahiz eta hezitzaileak zutik egiteko gonbitea egin.

Laburbilduz, helduak ume bakoitzarekin era batera edo bestera komunikatzen dela ikusi da, hitza, begirada edota keinuak erabiliz. Hala ere, hezitzaileak umeen hitzezko komunikazioa urria izan arren galdera ugari egiten ditu, jakinda jasoko dituen erantzunak gehienetan berak emango dituela. Gertatzen ari dena eta ondoren etorriko denaren inguruko aurrerapena ez du egiten, baizik eta etorkizun urrun batean gertatuko dena kontatzen die. Horrez gain, umeei parte hartzeko gonbitea egiten die baina erantzuna berehala ez datorrela ikusirik berak aurrera ekiten dio zaintza uneari. Gainera, harreman afektiboa maitasun keinuekin nahasten du, umearekin sortu behar duen harreman pribilegiatua lortzeko afektu keinu hauek erabiliz. Umeak aldiz, hizkuntza garapenaren arabera jarraitzen dute gertatzen ari dena baina ez dago parte hartze

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

zuzenik mugimenduei dagokionean. Helduaren arreta bereganatzeko, hitzezko komunikazioa eta keinuak erabiltzen dituzte maiz baina zaintza unearekin harreman zuzenik ez duten gertakariei buruz izaten da.

4. Ondorioak

Gradu Amaierako Lan honetan, Pikler-Lóczy eredu jarraituz, Abusu Ikastolan behatutako hezitzailearen zaintzan jarduerak aztertu dira. Budapesteko ereduak hemen duen eragina aztertu denez, topatu diren zailtasunak eta erraztasunak identifikatu ahal izan dira. Lortutako emaitzen arabera, hasiera batean proposatutako hipotesiak betetzeko zailtasun ugari daudela.

Proposatutako hipotesietako bat, hezitzaileak pixoihala aldatzen duen unea, une zaindua, goxoa eta Pikler eredu jarraitzen duela zen. Argi eta garbi ikusi dugu, hezitzaileak bere erara, zaintza unea ahalik eta atseginen egiten saiatzen dela. Hala ere, ez da unerik zaindu eta goxoa izaten, hezitzaileak pixoihalaren aldaketa egiten duenean umeeekin, ez baitu hauen autonomia errespetatzen edo ez die azaltzen gertatuko dena.

Hezitzailea pixoihalaren aldaketa burutzen doan heinean erabiliko dituen keinuak aipatu dira lanaren hasieran. Batetik, hezitzailearen partetik ahots goxoa erabiltzea espero zen, baina kasu honetan ez da halakorik gertatu. Hezitzaileak ez du ahots zakarra erabiltzen ezta, baina ez die Lóczyko hezitzaileek bezala hitz egiten, ahots uniformea, lasaia eta atsegina erabiliz. Horren ordez, maitasun keinuak erabiltzen ditu umearengana hurbiltzeko eta harremana estutzeko. Jasotako emaitzetan ikusi ahal izan dugun bezala, hizkuntza-garapen urriena daukanarekin erabiltzen ditu maitasun keinu eta ahots aldaketa gehien. Ume bakoitzarekin komunikazio zuzen eta harreman zuzen bat sortzeko ezintasunaren baitan kokatzen dira halako adierazpenak.

Behin eta berriro azpimarratu da Pikler-Lóczy ereduaren arabera hezitzaileak ume bakoitzarekin zaintza unean zehar begirada mantentzearen beharra, umearekin kontaktua bilatzeko modu bat dela. Abusuko hezitzaile honengatik ere, berdina espero zen. Heine handi batean begirada mantentzen du umeeekin, baina beti ekintza baten hasieran edota umearen arreta deitzeko. Ez du une oro mantentzen begirada umearekin, eta kasu askotan, hori arrazoia izan daiteke umeak zaintza unearen arreta galtzeko eta beste zerbaitetan hasteko, adibidez; apalategiko izenak esateko.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Hurrengo hipotesia, hezitzaileak umearekin harremana eta elkarrekintza sortzen dituenean *hemen eta orain* gertatzen ari denaz hitz egitea espero izatea da. Falkek dioenari jarraituz (2009), elkarrizketa bat sortzea ezinbestekoa da kalitatezko zaintza une batean, helduak umearekin harreman bat sortzeko pausu bezala ulertu baitaiteke. Baina horrez gain, gertatuko denaren berri ematen zaio umeari eta helduak ekintza horren kooperatzen duen laguntzaile bezala hartuko du umea. Bi kideren arteko ekintzan, kolaboratzaile izatetik partaide izatera igarotzeko, umeak esan nahi zaiona ulertu behar du. Beraz, hezitzaileak *hemen eta orain* zentratu beharrean beranduago gertatzen ari denaz hitz egiten badio umeari, ikerketa honetan jaso den bezala, zaila izango da zaintza une horretan gertatzen ari denaz jabetzea eta bere buruaren kontzientzia hartzea.

Kontaketa lana ez da soilik umeari edozertaz hitz egitea, zentzu bat eman behar zaio esaten zaionari. Helduak interes berezi bat izan behar du umearengan, bere parte hartzean, bere jarreran eta garapenean, azken finean, izaeran. Kasu honetan, hezitzaileak sortzen duen elkarrizketan ez da interes berezirik jartzen pixoihalaren aldaketan, baizik eta aurrerago gertatuko gertaeretan zentratzen da heldua.

Umeak hezitzailearekin duen harremanaren bitartez, bere gorputzarekin gertatzen ari denari berehalako irudikapena burutzeko gai izango dela espero da. Umeak jasoko dituen elkarrekintzak, zuzenak eta kalitatezkoak izanik helduarekin pribilegiozko harremana sortuko duela espero da, baina kasu honetan ez da horrela gertatu. Horren adibide garbiena, umeek behin eta berriro senideen inguruan galdetzen dutenean, edota eskuarekin eta hitza erabiliz espazioan dauden gauzak izendatzen dituztenean da. Izan ere, umeek zainketa unetik arreta beste nonbaiten kokatzen dutenean eta helduaren arreta ere bertara bideratzen dutenean haria galdu dutelako izan daiteke. Baina kasu hauetan, modu konstantean ematen da haria galtzareana, umeek keinuren bat edota hitza erabiltzen duten bakoitzean pixoihalarekin harreman gutxi duelako.

Emaitzen arabera, ondoriozta daiteke hezitzaileak ez duela zuzeneko komunikaziorik bilatzen umeekin, nolabaiteko azaleko komunikazio bat ematen da baina ez da inongo momentutan umearekin pribilegiozko harreman bat sortzeko asmoarekin ematen. Beraz, zuzeneko komunikazioa mantentzea espero izan arren, ez da bete bere osotasunean. Hezitzaileak umeak abisatu egiten ditu aldaketa unea iristen denean, zuzeneko komunikazioa mantentzen du umeari hitz egiten diolako baina ez du egoeraren kontakizun bat egiten. Hau da, galderaz josi egiten du umea jakinik erantzunik ez duela jasoko ez bada baieztatzeko galdera.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Helduak saiakera egiten du harremana sortzeko ume bakoitzarekin, eta horretarako, denbora gutxi barru gertatuko denaz hitz egiten die, arreta mantendu nahian. Arazoa da, kontaktzen duen hori nahiko urrun dagoela momentu horretatik eta umea nahastu besterik ez duela egiten.

Hezitzaileak hitzezko komunikazioa erabiltzen duenean ez badio umeari erreferentzia zuzenik egiten gertatzen ari denaz umeak oso zail izango du koreografia jarraitzea. Behin eta berriro aipatu da, ezinbestekoa dela kontakizun bat egitea, umeari momentu horretan gertatzen ari dena, gertatuko dena eta bere jarreraren inguruko iruzkinak egitea. Umearen parte hartzea eskertu behar zaio eta emaitza hauetan umeren batek parte hartzen baldin badu mugimendu edota keinu baten bidez hezitzaileak ez dio inongo erreferentziarik egiten umearen erantzun horri.

Maiz aipatu izan da lan honetan zehar, hezitzaileak denbora eman behar diola umeari adierazteko, eta helduak berak ere umearen keinuak interpretatzen ikasi behar duela. Azken finean, umeak parte hartzen duenean kooperatzen duen ume batean bihurtzen da eta heldua laguntzen du plazer hutsez. Haurra parte hartzera gonbidatzen duela ikusi dugu Pikler-Lóczy ereduan eta Abusukoan ere berdina espero genuen. Baina jasotako emaitzen arabera, ume gehienek jarrera pasiboa hartzen dute eta subjektu pasibo bilakatzen dira denbora eskasagatik, hezitzailearen errutinagatik eta parte hartzeko ohitura faltagatik. Beraz, egoera honetan zaila da heldua eta umearen arteko elkarrekintza zuzen eta aktibo bat sortzea, umeak bere gorputza jarrera pasiboan indartzen den bitartean hezitzaileak aurrera daraman koreografia ez duelako inongo arretarik jartzen.

Hala ere, denboraren kudeaketa ez da soilik hezitzailearen ardura, beregain dauden ume guztien higiene momentuak kudeatzea ez baita erraza. Gogoratu behar da heldu honek berak bakarrik hamabi ume dituela bere ardurapean, laguntzaile bat eguneko momentu batzuetan agertzen dela baina hezitzailea da umeekin harreman zuzena duena.

Beraz, Lóczyko errealitatearekin alderatuz, ia ezinezkoa izan daiteke hezitzaile honek ume bakoitzarekin harreman pribilegiatu bat sortzeko aukera izatea eguneko orduak zenbat diren kalkulaturik gero. Egia da zainketa une hauen iraupena ikusita hezitzaileak saiakera egiten duela elkarrekintza sortzeko umeekin, alderantziz ere gertatzen da inoiz umeen partetik, izan ere umeek ez dute denborarik helduarekin elkarrekintza sortzeko. Behatu ahal izan dugun bezala, hezitzaileak hasieran parte hartzeko gonbitea egiten du eta denbora labur batez itxaroten egon ostean berriro ekiten dio egin beharrekoari umeari erreparatu gabe.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Espero ziren keinuez gain, hezitzaileak Pikler-Lóczy ereduak zehaztutako koreografia aurrera eramatea espero zen baina ez da halakorik gertatu. Saiatzen da umekin errutina bat mantentzen eta aurrera eramaten baina ez da inongo momentutan haurraren autonomia garatzen duen koreografia bat. Gainera, egunaren arabera proposamen gehiago edo gutxiago egiten dizkie umeei eta ez du oreka bat mantentzen. Horrez gain, kontakizuna ere nahi duenean egiten du hezitzaileak, ez baitie egunero eta modu berean kontakizun zehatz bat egiten.

Hezitzailea ume bakoitzaren behar eta nahietara egokituko zela espero zen baina ume bakoitzaren ezaugarri eta berezitasunetan oinarritu beharrean kontrakoa egiten du. Haur bakoitzaren ezaugarriak indartzeko erabili beharrean, bere arreta beste zerbaitetara bideratzen du zaintza unean zehar. Adibidez, hitz egiteko gaitasuna duen umearekin pixoihalaren aldaketaz edota zelan sentitzen den galdetu beharrean testuinguru horretatik kanpo dagoen zerbaiten inguruan galdetzen dio, senideen inguruan, adibidez.

Behaketetan ikusi ahal izan denez hezitzaileak testuingurua prest dauka, beharrezko materialarekin. Baina lanaren hasieran zehaztutako azken hipotesia kontutan hartzen badugu, hau da; zaintza une hau burutzeko baliabide egokiak dituen, dela inondik betetzen ikusiko dugu. Izan ere, koltxoneta edo zoru bigunegi baten gainean egiten dute higiene momentu hori eta ume batzuen kasuan desoreka sentitzera iristen dira ezin direlako zutik mantendu. Umea aldatokian dagoela hezitzaileak etzan egiten du, sortzen dion desorekaren ondorioz ezin da bere kabuz zutik egon eta horrek jarrera pasibo batera eramaten du umea. Azken finean, bere mugimendu librea eta autonomia mugatu egiten ditu.

Lanaren hasieran aipatzen diren hipotesi gehienak bete ez direla esan daiteke baina hezitzaileak umearekin elkarrekintza sortzeko ahalegina egiten duela ukaezina da. Agian, umearengana zuzentzeko moduak akatsak izango ditu, egoerak sortu dezakeen estresak eragina izango du edota espazio egokia ez izateak ere zeresana izango du. Hala ere, Pikler-Lóczy eredutik urrun dagoela onartu beharra dago, hezitzaileak umearekin konpartitu beharreko uneak gaizki interpretatu direla esan daiteke eta zainketa uneei duten garrantzia kendu zaiela.

Amaitzeko, Gradu Amaierako Lan honen gaia zehazten hasi nintzenean, oso argi neukan umea eta hezitzailearen arteko komunikazioa eta harremana izango zirela nire oinarriak, horrela zein testuingurutan aztertu nahi nituenean orain arte gutxi ezagututako Pikler-Lóczy eredu batean egin nahi nuela erabaki nuen. Eredu honek gradu honetan zehar izan duen presentzia urria zela jakin arren lehen haurtzaroan jarri nahi nuen arreta. Lehen haurtzaroak gure

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

etorkizunean duen garrantziaz ohartzeko balio izan dit lan honek, hemen ulertu baitut zenbaterainoko garrantzia duen ume bati garapen harmoniko eta orekatu bat eskaintzea eta zein den benetan kalitatezko zaintza baten oinarria.

Prozesua ez da batere erraza izan, hasiera batean behatzeko aukeratutako ereduak Pikler-Lóczy eredutik hurbilago zegoela pentsatzen nuelako. Baina grabaketak egiten hasi eta berehala ikusi nuen gero eta urrunago zegoela aztertuko nuen eredutik. Hala ere baliagarria izan zait, eredu honen aspektu txikiak aztertzeko eta ezinbestekotasun hori ulertzeko. Gainera, hezitzailearen rola esku hartze zuzeneko eremuan nolakoa izan behar den ulertu dut. Hizkuntzak, keinuek, jarrerak, behatzeak, espazioak eta denborak duten eragina ikusirik pixoihalaren aldaketan detaile txiki bakoitzari bere lekua eman behar zaiola ikasi dut.

Behatutako ereduari buruz nabaritu izan dut bai hezitzailearen partetik zein umeen partetik, ni bertan grabatzen egoteak egonezin puntu bat sortu ziela eta horrek eragina izan zuela pixoihalaren aldaketan. Gai honek beti arretoa berezia sortu izan dit nire ikasketa prozesu osoan zehar. Izan ere, gure lana, hezitzaileona, aurrera eramaterako orduan helduak umearekiko duen ikuspegiak eta beregana zuzentzeko erak garrantzia izugarria duela uste dut.

5. Erreferentziak

David, M. eta Appell, G. (2010). *Lóczy, una insólita atención personal*. Bartzelona: Octaedro.

Falk, J. (2009). Los fundamentos de una verdadera autonomía. *Infancia*, 116, 22-31.

Falk, J. (2013). Si tocamos el cuerpo del bebé... En J- Falk (Ed.) *Bañando al bebé. El arte del cuidado* (pp. 7-16). Budapest: Asociación Pikler-Lóczy de Hungría.

Herrán, E. (2014). Pikler-Lóczy Eredua: Zaintzea denean hezkuntzaren abiapuntua. *TANTAK*, 26(2), 77-100.

Hevesi, K. (1980). La participación del pequeño en la atención personal. *Infancia*, 20, 14-18.

Pikler, E. (2013). El baño del niño. Guía práctica. En J. Falk (Ed), *Bañando al bebé. El arte del cuidado* (pp. 37-84). Asociación Pikler-Lóczy de Hungría: Budapest.

Tardos, A (2014). Anna Tardos: Pikler-Lóczy Institutuko zuzendaria. *Hik Hasi*, 192.znbk, 16-23.

Wallon, H. (1976). *La evolución psicológica del niño*. Barcelona: Crítica.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: Grabaketen datuak

	Ume_1	Ume_2	Ume_3	Ume_4	Ume_5	Ume_6	Ume_7	Guztira
2016-01-11	2:39		3:21	3:05	3:37			17:52
2016-01-12	3:12	3:38	2:41	2:58	3:11		2:34	20:57
2016-01-13	3:25		3:32	2:57	1:09		5:10	22:29
2016-01-26	2:49	3:23	3:07	3:10	4:13	8:06	2:28	26:57
2016-01-27	3:32	4:07	2:56	2:59	2:42	5:22	2:33	26:52
2016-01-29	2:18	4:10		2:36	3:23			13:16
2016-02-01					3:49		2:32	12:31
2016-02-02	1:47	3:52	3:09				2:55	17:14
2016-02-04		5:34					1:12	5:57
2016-02-11		3:11	3:39	2:50	2:40	4:01		23:43

II. ERANSKINA: Jasotako datu orokorrak

Saioak	Ume_1		Ume_2		Ume_3		Ume_4		Ume_5		Ume_6		Ume_7		GUZTIRA	
	HA	HE	HA	HE	HA	HE	HA	HE	HA	HE	HA	HE	HA	HE	HA	HE
2016-01-11	5H, 1KE, 5BH	7G, 2BB, 3GA, 3AP, 3Z			3H, 3BB, 3KE, 2BK, 4BH	7G, 3BB, 3GA, 4AP, 3Z, 2AA	1BB, 2KE, 1BK	9G, 5BB, 3GA, 5AP, 2MK, 5Z, 2AA	5H, 3BB, 1KE, 1BK, 11BH	10G, 5BB, 7GA, 4AP, 8Z, 1AA			4BB, 4KE	7G, 5BB, 7GA, 4AP, 11Z	13H, 11BB, 11KE, 20BH, 4BK	40G, 20BB, 23GA, 20AP, 30Z, 2MK, 5AA
2016-01-12	6H, 2BB, 3KE, 4BH	7G, 3BB, 6GA, 5AP, 1MK, 7Z	6H, 2BB, 4KE, 1BK	9G, 3BB, 5GA, 3AP, 7Z	3H, 3BB, 2KE, 5BK, 4BH	10G, 6BB, 4GA, 5AP, 6Z	3BB, 1KE, 1BK	2G, 2BB, 4GA, 3AP, 3Z	21H, 5BB, 4BH	10G, 5BB, 5GA, 5AP, 20Z			3BB, 3KE, 4BK	5G, 6BB, 5GA, 3AP, 3MK, 13Z, 1AA	36H, 18BB, 13KE, 12BH, 11BK	43G, 25BB, 29GA, 24AP, 4MK, 53Z, 1AA

2016-01-13	25H, 7BB, 14BH	12G, 7BB, 1GA, 2AP, 13Z			13H, 5BB, 3KE, 2BK, 2BH	10G, 6BB, 1GA, 5AP, 2MK, 16Z	2BB, 2KE, 2BK	6G, 8BB, 5GA, 4AP, 1MK, 8Z	5H, 1BB, 5BH	3G, 3BB, 4GA, 3AP			6H, 6BB, 7KE, 5BK	7G, 7BB, 7GA, 7MK, 13Z	49H, 21BB 21BH 12KE 9BK	38G, 31BB, 18GA, 14AP, 50Z, 10MK
2016-01-26	15H, 1BB, 1KE, 1BK, 13BH	11G, 5BB, 2GA, 3AP, 1MK, 13Z	17H, 4BB, 7KE, 3BK, 5BH	8G, 4BB, 7GA, 6AP, 19Z	8H, 3BB, 4KE, 1BK, 4BH	16G, 3BB, 1GA, 7AP, 2MK, 24Z	4BB, 1KE	8G, 6BB, 2GA, 6AP, 14Z	20H, 8BB, 13BH	10G, 10BB, 3GA, 4AP, 1MK, 17Z	18H, 2BB, 8KE, 4BK, 6BH	15G, 9BB, 4AP, 19Z	1H, 3BB, 4KE	7G, 3BB, 2GA, 3AP, 3MK, 12Z	79H, 25BB 33KE 9BK 41BH	75G, 40BB, 17GA, 33AP, 118Z, 5MK
2016-01-27	38H, 11BB, 1KE, 4BH	8G, 11B, B, 2GA, 4AP, 14Z	27H, 4BB, 4KE, 4BK, 6BH	10G, 5BB, 6GA, 5AP, 21Z	3H, 6BB, 2KE, 5BK, 5BH	6G, 10BB, 2GA, 2AP, 10Z	3BB, 2KE	9G, 5BB, 4GA, 5AP, 1MK, 18Z	5H, 3BB	6G, 5BB, 1GA, 3AP, 10Z	20H, 5BB, 5BB, 1KE, 2BK, 5BH	10G, 5BB, 4GA, 5AP, 2MK, 19Z	7H, 6BB, 3KE	3G, 6BB, 2AP, 2MK, 5Z	100H, 38BB 13KE 20BH 11BK	52G, 47BB, 19GA, 26AP, 97Z, 5MK
2016-01-29	7H, 3BB, 1KE,	8G, 4BB, 2GA,	12H, 4BB, 6KE,	12G, 8BB, 4GA,			2BB, 1KE	3G, 6BB, 1GA, 1AP,	6H, 3BB, 9BH	8G, 5BB, 4GA,					25H, 10BB 8KE,	31G, 23BB, 11GA, 16AP,

	3BK, 8BH	4AP, 10Z	2BK, 2BH	8AP, 18Z				2MK, 5Z		3AP, 15Z				5BK, 19BH	47Z, 2MK	
2016-02-01									2H, 5BB, 1BK, 6BH	7G, 6BB, 2GA, 5AP, 1MK, 14Z			1H, 4BB, 5KE, 1BK, 1BH	4G, 5BB, 4GA, 5AP, 1MK, 13Z	3H, 9BB, 2BK, 7BH, 5KE	11G, 11BB, 6GA, 10AP, 2MK, 27Z
2016-02-02	6H, 4BB, 6BH	5G, 5BB, 1GA, 1AP, 7Z	7H, 5BB, 5KE, 1BK, 4BH	8G, 8BB, 2GA, 2AP, 1MK, 7Z	8H, 4BB, 5KE, 2BK, 5BH	10G, 8BB, 2GA, 3AP, 15Z, 2AA							1H, 4BB, 5KE	4G, 7BB, 6GA, 5AP, 6MK, 8Z	22H, 17BB, 15BH, 15KE, 3BK	27G, 28BB, 11GA, 11AP, 37Z, 7MK, 2AA
2016-02-04			8H, 3BB, 3KE, 4BK, 2BH	8G, 6BB, 5GA, 6AP, 8Z									1H, 1KE, 1BK	2G, 3BB, 3GA, 2AP, 4Z	9H, 3BB, 3KE, 5BK, 2BH	10G, 9BB, 8GA, 8AP, 12Z

2016-02-11			4H, 3BB, 3BK, 1BH	7G, 5BB, 7GA, 5AP, 1MK, 8Z	8H, 4BB, 4KE, 2BK, 4BH	8G, 6BB, 3AP, 11Z	2BB, 3BK	3G, 3BB, 3GA, 4AP, 1MK, 10Z	3H, 3BB, 9BH	7G, 4BB, 1GA, 3AP, 1MK, 11Z	20H, 6BB, 4KE, 2BH	7G, 7BB, 2GA, 5AP, 14Z			35H, 18BB, 8BK, 16BH, 8KE	32G, 25BB, 13GA, 20AP, 54Z, 3MK
EMAITZA	165H, 7KE, 28BB, 4BK, 54BH	58G, 37B B 17G A 22A P 80Z, 2MK	81H, 25BB 29KE 18BK 20BH	62G, 39BB 36G A 35AP 88Z 2MK	46H, 28BB 23KE 19BK 28BH	67G, 42BB, 13GA, 29AP, 85Z, 4MK, 4AA	15BB, 9KE, 7BK	37G, 35BB, 22GA, 28AP, 63Z, 6MK, 2AA	67H, 31BB, 1KE, 2BK, 57BH	61G, 43BB, 27GA, 30AP, 95Z, 3MK, 1AA	48H, 13B B 13K E 6BK, 13B H	32G, 21BB 6GA, 14AP 52Z, 2MK	11H, 30B B 31K E 11B K 1BH	39G, 42BB 34G A 24AP 79Z, 21M K, 1AA		